

Martxan jarri zenetik hilabete soilik igaro denean.

100.000 LAGUNEK BAINO GEHIAGOK EGIN DUTE EROSKI KLUB MASTERCARD KREDITU-TXARTEL BERRIA

- **Multitxartelak aukera ematen du EROSKI Klubeko programaren eta kreditu-txartelaren abantailak bateratzeko EROSKIren denda-sarean; hori da, hain zuzen, haren ezaugarri nagusietako bat**
- **Kreditu-txartela egin dutenek bereziki balioesten dute EROSKI tik* kanpo ordaindutako erosketen % 1 EROSKI Klub txartel elkartuan sartzea**

Elorrio, 2017ko uztailaren 12a.- Martxan jarri zenetik hilabete igaro den honetan, 100.000 lagunek baino gehiagok egin dute EROSKI Klub-Mastercard kreditu-txartel berria. Horrenbestez, kreditu-txartelak ematen dituen aurrezteko abantailez, zerbitzuez eta ordaintzeko erraztasunez baliatzen ari dira jada.

Bezeroek gehien atsegin dituzten abantailak da txartel berriak aurrezpen bilakatzen duela EROSKI tik* kanpo ordaindutako erosketen % 1. Diru hori EROSKI Klubaren txartel elkartuan sartzen du, Bezero Bazkideak diru gisa erabil dezan edozein supermerkatu, hipermerkatu, gasolina-zerbitzugune, optika, bidai-agentzia edo kooperatibaren online dendatan erosketak egiten dituenean. Halaber, multitxartela izateak dakarren erosotasuna ere nabarmentzen dute, EROSKI Klubaren fidelizazio-txartelarekin lotuta baitago, eta beraz, Bezero Bazkideen onura guztiak eta kreditu-txartel batenak elkartzeko dituzten EROSKIren denda-sarean erosketak egiten direnean. Erabiltzaileek gehien atsegin dituzten abantailak beste bat da EROSKI Kluba-Mastercard kreditu-txartel berriak aukera ematen duela 300 euro ere izateko eskudirutan, EROSKIren edozein dendatan eta komisiorik ordaindu gabe, titularrak eskuragarri duen mugaren arabera eta hark eskuarki ordaintzen duen eran.

EROSKI Kluba-Mastercard kreditu-txartel berria martxan egon den lehen hilabeteko balantzea oso ona izan da. "Oso pozik gaude bezeroek sekulako harrera egin diotelako Mastercardekin batera abian jarri dugun ekimen honi, eta horrek EROSKI Kluba sendotzen du, aurrezteko plataforma eta markarekiko lotura den aldetik", adierazi du EROSKIren Marketin zuzendariak, Eva Ugartek. Eta zera gehitu du: "Aurten genuen helburua bete dugu jada, 100.000 titular baino gehiago daude eta".

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



EROSKI Kluba-Mastercard kreditu-txartel berria edonoiz eska dezakete kontsumitzaileek EROSKIren edozein dendatan, supermerkatutan, hipermerkatutan, gasolina-zerbitzugunetan, optikatan edo bidaia-agentzian.

Duela gutxi, Lufthansak bat egin du EROSKI Kluba-Mastercard kreditu-txartelarekin. Hemendik aurrera, eta azaroaren 30era arte, Lufthansaren edozein hegaldi EROSKI Kluba-Mastercard kreditu-txartelaren bidez erosten dutenek % 5 aurreztuko dute hegaldiaren zenbatekoan (tarifa garbiaren oinarriaren gainean, tasak alde batera utzita). Diru-kopuru hori EROSKI Kluba txartelean sartuko da, EROSKIren hipermerkatu- eta supermerkatu-sarean egiten diren hurrengo erosketetan erabiltzeko.

EROSKI Kluba-Mastercard txartelaren abantaila horretaz ere baliatu nahi dutenek 90 eguneko epea izango dute diru-kopuru hori EROSKI Kluba txartelean sar dezaten eskatzeko, hegaldia erosten den egunetik aurrera zenbatuta.

* Kanpoan gelditzen dira hipermerkatuak eta haien gasolina-zerbitzuguneak, supermerkatuak eta haien gasolina-zerbitzuguneak, janari-dendak, jokoarekin eta apustuekin zerikusia duten erabilerak, eta eskudirua ateratzea eta eskuratzea, ez baitira ondasunak edo zerbitzuak erosteko operazioak. Zenbatekoa kalkulatzeko, erosketak garbia hartzen da (abonuak eta itzulketak kenduta), establezimendu saltzaileak adierazitako jarduera-motaren arabera. ** Gehienez, 300 euro, titularrak erabil dezakeen mugaren barrenean eta ordaintzeko duen ohiko eran.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)